

### PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	ERAIKUNTZA-OBRETAKO GAUZATZE-FASEAREN PLANIFIKAZIOA	Iraupena	60
		Berariazkoa	
Kodea	UF0648		
Lanbide-arloa	ERAIKINGINTZA ETA OBRA ZIBILAK		
Lanbide-eremua	Obra-proiektuak eta -segimendua		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Eraikuntza-proiektu eta -obren kontrola	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Eraikuntza-planifikazioa	Iraupena	210
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Proiektuen eta obren planifikazioa diseinu- eta kontratazio-faseetan	Iraupena	90
	Eraikuntza-proiektu eta -obren planifikazioaren segimendua.		60

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0874\_3 ERAIKUNTZA-PLANIFIKAZIOAREN SEGIMENDUA EGITEA gaitasun-ataleko LB4 eta LB5 lanbide-burutzapenekin.

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

- A1: Eraikuntza-obren gauzatzea osatzen duten unitateak aztertzea, eta nola, noiz eta nork exekutatu dituen deskribatzea.
- EI1.1 Eraikingintza-proiektu bat eta urbanizazio-proiektu bat gauzatzeak dakartzen kapituluak zerrendatzea, haien garapena eta bien arteko denbora-erlazioak zehaztea, eta bi kasuak konparatzea.
- EI1.2 Eraikuntzak egiteko prozesuko kapituluetako obra-unitate ohikoak zerrendatzea, eraikin-motak bereiztea (bizitegia, bulegoa, saltoki-gunea, beste batzuk), eta obra-unitateen izaera eta haien arteko denbora-erlazioak azaltzea.
- EI1.3 Urbanizazio-obrak egiteko prozesuko kapituluetako obra-unitate ohikoak zerrendatzea, eta obra-unitateen izaera eta haien arteko denbora-erlazioak azaltzea.
- 1.4 Azpiegitura zibil klase eta mota guztien funtzioak eta ezaugarri nagusiak deskribatzea.
- EI1.5 Obretako egitura hierarkikoa azaltzea (langileak, taldeburuak, langileburuak, arduradunak, arduradun nagusiak eta obraburua).
- EI1.6 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, unitateak exekutatzeko erabiltzen diren baliabideak identifikatzea (materialak, lanbideak eta makinak).
- EI1.7 Behin-behineko instalazioak, baliabide osagarriak eta babes kolektibokoak identifikatzea eraikingintzako eta urbanizazioko obra tipoetan.
- EI1.8 Eraikingintzako eta urbanizazioko obra tipoetako unitate esanguratsuenak gauzatzeko metodoak eta prozedurak deskribatzea.
- EI1.9 Obren denbora-garapenean gertatzen diren desbideratze ohikoak zerrendatzea, eta horiek murrizteko neurriak zerrendatzea.
- A2: Proiektu jakin baten Gauzatze Programa osatzen duten jarduerak zehaztea, obra tipo baten xehatze-egiturarekin eta programarekin alderatzea, eta programa definitzeko behar den informazio osagarria ezartzea eta eskuratzea.
- EI2.1 Eraikuntza-obretako ohiko eraikuntza-jarduerak zerrendatzea, eta aurrekontuko obra-unitateekiko erlazioa eta neurketak ezartzea.
- EI2.2 Urbanizazio-obretako ohiko eraikuntza-jarduerak zerrendatzea, eta aurrekontuko obra-unitateekiko erlazioa eta neurketak ezartzea.
- EI2.3 Eraikuntza-jarduerak gauzatzeko prozesuan parte hartzen duten ekipoak eta lortutako batez besteko errendimenduak identifikatzea.
- EI2.4 Gauzatze Programa definitzen duten datu-bilketarako formularioen edukia eta betetzeko prozesua deskribatzea.
- EI2.5 Eraikuntzako baliabideei eta errendimenduei buruzko informazio-iturriak identifikatzea.
- EI2.6 Gauzatze-faseko planifikazioaren segimendu-, eguneratze- eta berraztertze-beharrak azaltzea.
- EI2.7 Desaktibazio-prozesuen denbora-garapenean gertatzen diren ohiko desbideratzeak eta desbideratze horiek murrizteko neurriak zerrendatzea.
- EI2.8 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan obra erraz baten kasu praktiko batean, kontuan hartuz eraikuntza bat eta eraikuntza hori dagoen lursaila ditugula, haien proiektu-dokumentuak eta baliabide tradizionalak eta aplikazio informatikoak ditugula, eta antzeko beste obra batekin konparatuz, zeinaren programa erabiliko baitugu eredu gisa:
- Haren xehatze-egitura zehaztea.
  - Jardueren zerrenda lortzea eta kodetzea.
  - Jardueren iraupena kalkulatzeko, baliabideak esleitzeko eta errendimendu estandarrek aplikatuz.
  - Fase bateko jarduerak erlazionatzea, bai eta beste fase bateko jarduerekin erlazionatzea ere.
  - Aurrekotasun-sarea konfiguratzeko.
- A3: Proiektu jakin baten Desaktibazio Programa osatzen duten jarduerak zehaztea, desaktibazio-fasea garatzeko behar diren lanak eta irizpideak aztertuz, eta proiektu tipo baten xehatze-egiturarekin eta programarekin konparatuz.

EI3.1 Eraikuntza-proiektu baten desaktibazioak dakartzan lan eta izapide ohikoak azaltzea, eta haien egiteko denbora-eskema bat zehaztea.

EI3.2 Eraikuntza-proiektu bat desaktibatze prozesuan parte hartu duten eta/edo kontsultak egin zaizkien eragileak identifikatzea.

EI3.3 Desaktibazio-prozesuen denbora-garapenean gertatzen diren ohiko desbideratzeak eta desbideratze horien murrizteko neurriak zerrendatzea.

EI3.4 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, baliabide tradizionalen eta aplikazio informatikoen, eta programa eredugarria duen antzeko beste obra batekin konparatuz, proiektu jakin baten Desaktibazio Programa sortzea:

- Xehatze-egitura zehaztea.
- Jardueren zerrenda lortzea eta kodetzea.
- Jardueren iraupena kalkulatzeko, baliabideak esleitzeko eta errendimendu estandarriak aplikatzeko.
- Fase bateko jarduerak erlazionatzea, bai eta beste fase bateko jarduerekin erlazionatzea ere.
- Aurrekotasun-sarea konfiguratzeko.

## **Edukiak**

### **1. Eraikuntza-obrak, alderdi orokorrak.**

- Eraikuntzako eta obra zibileko obra: obra-kalseak eta -motak, funtzioak; eraikuntza-obren eta obra zibilen arteko elementu komunak.
- Obra-jardueraren eta obra-unitatearen arteko aldea.
- Baliabideak: materialak, eskulana, ekipak.
- Organigramak obretan.
- Eraikuntzako kode teknikoak.

### **2. Eraikuntza-obrak planifikatzea.**

- Eraikuntza-obra motak.
- Xehatze-egiturak.
- Ohiko kapituluak eraikuntza-obretan:
  - Eraispeneak era apezkoak.
  - Lur-mugimendua.
  - Saneamendu-sare horizontala.
  - Zimenduak.
  - Egiturak.
  - Itxiturak eta partizioak.
  - Estaldurak eta sabai aizunak.
  - Estalkiak.
  - Isolamenduak eta iragazgaitzak.
  - Zoladurak, alikatatuak eta xaflatuak.
  - Arotzeria.
  - Instalazioak.
  - Akaberak.
  - Birgaitzea eta leheneratzea.
  - Baliabide osagarriak eta babes kolektibokoak, behin-behineko instalazioak.
- Helburuak, gauzatze-metodoak funtzioaren arabera, erabilitako baliabideak, eraikuntza-sistemak eta/edo material-mota.
- Obra- eta neurketa-unitateak.
- Aldi baterako jarduerak eta erlazioak.
- Baliabideak eta errendimenduak: eraikuntzako datu-baseak.

### **3. Obra zibilaren planifikazioa, urbanizazio-obrak.**

- Obra zibil motak. Urbanizazio-obrak.
- Xehatze-egiturak urbanizazio-obretan.
- Ohiko kapituluak urbanizazio-obretan:
  - Lur-berdinketak.
  - Drainatzeak.
  - Bide-zoruak.
  - Oinezkoentzako guneak.
  - Defentsa-hormak eta -obrak.
  - Zubia eta pasaguneak.
  - Tunelak.
  - Ur-hornikuntza.
  - Saneamendua eta ur-arazketa.
  - Hiriko azpiegituren sareak.

- Lorezaintza eta paisaiaren tratamendua.
- Hiri-altzariak.
- Kirol-instalazioak.
- Seinalezatzea eta balizatzea.
- Baliabide osagarriak eta babes kolektibokoak, behin-behineko instalazioak.
- Helburuak, gauzate-metodoak funtzioaren arabera, erabilitako baliabideak, eraikuntza-sistemak eta/edo material-mota.
- Obra- eta neurketa-unitateak.
- Aldi baterako jarduerak eta erlazioak.
- Baliabideak eta errendimenduak: eraikuntzako datu-baseak.

#### 4. Proiektuaren desaktibazio-fasea planifikatzea

- Eraikuntza-proiektuen kontratazioa:
  - Desaktibazioaren helburuak: obra abiaraztea eta entregatzea.
  - Eragile parte-hartzaileak.
  - Desaktibazio-fasearen antolakuntza.
  - Desbideratze ohikoak epeetan desaktibazio-fasean. (kausak eta efektuak).
- Desaktibazio-fasearen etapak.
- Gauzate-fasearekiko erlazioa.
- Desaktibazio Programa: xehatze-egiturak eta jarduerak.

#### 5. Planifikazioko aplikazio informatikoak gauzate- eta desaktibazio-faseetan.

- Jardueren kodifikazioa eta Desaktibazio Programen kalkulua proiektuetan eta obretan.
- Jardueren kodifikazioa eta Gauzate Programen kalkulua eraikuntza- eta urbanizazio-obretan.

### C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta lanbide-eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Eraikuntza-proiektu eta -obren kontrola.